

Testua: SOLU  
Testu adizionala: bb  
Gaztelaniatik itzulia: Jon Urruxulegi

Testu hau zemos98\_6 katalogoan publikatu zen eta ZEMOS98-k antolatutako REPEAT PLEASE - CULTURA VJ EN 2007 katalogoan.

## VJ-en Kultura:

Loop-en industriatik Eszenarioetara Denbora Errealean

2003 izan zen VJ kulturaren garapen-hasiera eta dirudienez arrakastak aurrera darrai. 2006an publikatu zituzten D-FUSE, Xárene Eskander, Tim Jaeger eta Paul Spinrad & Melissa Ulto-k beren liburu itzaltsuak VJei buruz, beltza zuri gainean joera kanonizatuz.

VJ komunitateak hazten ari dira, beren sare propioak eraikiz eta VJ jaialdiak antolatuz, hauetan biltzen direlarik artistak beren azken obrak erakutsi eta mahai-inguruetan beren etorkizunaz debatitzeko. Nahiz eta aktuazioak emateko egoitza eta bitarteko ugariak etorkizuna distiratsu eta hurbil ikusarazten duten, kultura berria izatea oraindik oztopo zaigu kontzeptu garaikidea gainditzeko.

MTVren lehen egunetan, Video Jockey deitzen zitzairen katean momentuko pop izarren musika bideoak aurkezten zituztenei.

Batzuk ospetsuak egin ziren, beren telebista programak aurkezten zituztelarik. MTVren igoera, hots, enpresa ekimen arrakastatsua izatetik kultur produktua izatera igaro zenean, VJ terminoa American Heritage Dictionary-n jarri zuen. Gaur VJ terminoak irudiak zuzenean sortzen dituzten artista eszenikoen erreferentzia egiten du inguru dibertsoetan hainbat musika estilori akonpainamendua egiteko, MTVko busto hitzunei baino areago.

VJ Benton C. Bainbridge New Yorken bizi da eta berak esplikatzen du momentuko modan zegoen terminoaren trantsizioa termino artistiko izatera.

“Ustekabean ohartu nintzen, 2000. urtean, zuzeneko bideoak eta oro har bisualak sortutako interesaren eztandaz. 2000 baino lehenago, jendeari kontatzen nionean bideoa zuzenean egiten nuela, halako harridurazko aurpegiz begiratzen zidaten. Gaur esan edonori zuzeneko bideoa egiten dudala eta “jakina, orduan VJ zara” erantzuten dit”. Nahiz eta terminoa oraintsu egin den ezaguna kontestu honetan, ikus-entzunezko aurkezpenak giza kulturaren hasieran sortu ziren. VJ Flunchpunkt-ek errebindikatzen du Lascaux-ko haitzuloak ere funtsean historiaurreko raveen hondakinak direla, teknologia aurreko elementu bisualekin egindako jaialdiak. Oraintsuago, trippy proiektzioek, Mark Boylek 60ko hamarkadan Londresko UFO klubean emandako ikuskizun iluminatuek eta sesio psikodelikoek underground kulturako funtzio informatiboa betetzen zutela. Dirudienez, gizonak antzinatek izan du irudi proiektatuekiko interesa, ikuste egintza berrituz edota ametsak errealitate bihurtuz.

Zuzeneko manipulazio bisualera hurbiltze dibertsoek arte hau praktikatu dutenen historia eta dibertsitatea islatzen dute.

Estilo dibertsoetan sartzen dira nola oso tekniko eta finduak hala xume eta kalitate txikikoak, zeren eta interpreteek beren proiektioetarako bai bideojokoen kontsolak eta eramangarriak bai eta eszenario konplikatuak miniaturan. Barietate hau izan arren, sortu da halako lexiko kolektibo bat imajinetan, gaietan eta tekniketan. VJek normalean begirada mobilizatzen dute, etengabeko kamera mugimenduak inplikaturaz, desplazamendu sententzioa eta abstrakzio ez linearreko esperientzia haluzinogeno mimikoak produzituz, irudiak soinuak bailiran pilatu eta manipulaturaz. VJek kultura garaikidearen historiak proiektatzen dituzte, aldamenean jarritz telebistatik lortutako zatiak, bideoak, pelikulak, errebistak, animazioak, bideojokoak, bideoarte, politika etab. Haiengandik elikatu eta gure eguneroko bizitzan esperimentatzen dugun manipulazio bisual handia kontestuan jarritz.

Garraiatzeko geroz eta errazagoak eta ugariagoak diren tresnak lortzeko erraztasunak egiten du artisten barietate zabal handiak aukera izatea historiak era honetan kontatzen hasteko eta VJen komunitatea hedatu eta ugaltzea eragin du. “VJen indartzea partzialki geroz eta tresna potenteago eta merkeagoak denbora errealean edukitzeari zor zaio, hala nola kamera digitalak eta eramangarrientzako aplikazioak”, dio Bentonek. Analogikotik digitalera igarotzeak ere posible egin du VJek ekipo arinagoekin bidaiatu ahal izatea. Ekipo pisua, VHS bezalako erreproduktoreak, bideo nahasketarako mahaiak, monitoreak eta proiektoreak ordezkatuak izan dira eramangarri eta kable batzuekin, eta klub gehienek jada instalatua dute performance bisualetarako beharrezko azpiegitura.

Eramangarri txiki eta bizkorrez gainera, bada VJentzat programa informatikoen benetako aukera zabala. Audio-visualizers-ek, interneteko atari handienetako bat, ia ehun bat aplikazio dauzka bere listatuan. VJ baten estiloa programaren araberakoa da. Arkaos edo Resolume bezalako oinarritzko aplikazioek teklatura erabiltzen dute bideoklip edo kanpoaldeko iturrien galeria batean alternatzeko eta funky efektu batzuk eransteko. Orainsu eman da aplikazio modular konplexuagoetarako aldaketa, hala nola Jitter edo Puredata, VJei posible egiten dietenak beren efektu propioak programatu eta bideo-objektu deituak nahastu eta aldatzea. Programen barietate honek VJ programazio informatikora hurbiltzen du, artistei elementu bisualak kanpoko daturik gabe sortzea bideratuz. Keyword bezalako sare programek posible egiten die urrutiko dauden parte hartzaileei jam bisual sesio batean zuzenean nahastuak izan daitezkeen irudiak igortzea.

Komunikazio elektronikoen garapen honen emaitza bezala jam sesioak eta interakzioa VJen kulturaren funtsezko jardura bihurtu dira. VJ komunitateak, hala nola SAT-ek Montrealen, hainbat herrialdeetako VJak inbitatzen dituzte internetez irudiak bidal ditzaten eta gero denbora errealean berrigorri egiten dituzte interneten sartua dagoen edozein PCrentzat. Halaber kolaboratu dute Bartzelonako UPC bezalako unibertsitateekin internet2-rekin esperimentatzeko, zeinen banda-zabalera egokiagoa baita materialak bideoan transmititzeko. Jam sesioek ere aurkitu dute beren egoitza Share klub newyorktarrean, non soinuaren eta bisualen sortzaileak astero biltzen diren elkarrekin pintxatu eta inprobisatzeko.

Kontinentearteko aldaketa honek emaitza interesgarriak sortu ditu. “VJen kultura mugimendu global bihurtu denez, ironikoki gure azpieszena eta eskualde txikietara gertuagotzen ari gara, estiloetan banatuz kasik musika elektronikoan bezala gertatzen delarik. Ohartu naiz estetika batzuk nagusitu egin direla zona jakin batzuetan. Londresen mundu errealean oinarrituriko imajineria nagusitu da, Berlinen bisualek minimalistak, urbanoak eta ertz gogorrekoak izatera jotzen dute eta, San Franciscoko Badia inguruan, aldiz, maiz psikodelikoak, zurrumbilduak eta koloristak dira”, adierazi du Bentonek.

Jakina, garapen paraleloa eman da estetika bisualaren eta VJk akonpainatzen duen musikaren artean. Klubetan, bisualek maiz DJ batekin zuzeneko dialogoan egindako bideo musikalak bezala funtzionatzen dute. Sexy grafikoek eta modakoek house musikara jotzen dute eta teknoak eta elektroak, berriz, irudi gogorrago eta minimalistagoak iradokitzen dituzte. Klubeko VJek asumitzen dute bisualak soinu ezezagun batekin trukatzeko eta ustekabeko dantza pista baten erronka, VJ eta DJ-ren arteko komunikazioa maiz estilo arazoetara mugatuz.

Ihardespen bezala, VJ emergente batzuek taldeak osatu dituzte musikariekin. A/V kolektibo hauek performanceak produzitzen dituzte irudia eta soinuaren interakzioak maila jasoagoak dituenean. New Yorkeko 242.pilotos, Vienako Farmers Manual, Bruselako Visual Kitchen edo Londresko Slub denek hain zuzen ere soinu eta irudiaren arteko banaketa itxuragabetu egiten dute, kritikaren gorespenez eta publikoan arrakastatsu. Joera hau, gainera, areagotzen ari da performance audiobisualen aurrean. 2003an 242.pilotos-ek irabazi zuen Golden Award irudiaren kategorian Berlingo media festival Transmedialen. Beste bideo eta zine festibal batzuk kategoria espermentalak erantsi dituzte beren programetan DVDak eta zuzeneko aktuzioak sartzeko. Publikoak esperientzia audiobisual berriak nahi ditu, baina artistek beren obra erakusteko beharrezko ekipamendu teknikoarekin lekuak behar dituzte. Bruselan, Nico Wierinck-ek, Cimatics-en bultzatzaile eta sortzaileak, behar hauei erantzuteko errepresentazio audiobisualentzat ebentua bereziak antolatzen ditu:

“VJentzat jaialdi bat antolatzeko ideia nahikoa sinplea da; bagenituen belgiar VJ onak baina plataforma berezirik ez hemen Belgikan. Coldcut, Hexstatic edo Visual Kitchen bezalako VJ pioneroek eman zidaten bultzada bikaina... Eta asko hunkitu ninduten Exceedaren zuzeneko ikuskizunek. Elkarrekin muntatu nahi genuen VJ kulturaren ikuspegi global bat mundu osoan eskainiko zuen programa bat – DJ/VJ montajeak, A/V performanceak, zinea zuzenean, proiektzioak, hitzaldiak, DVD zigiluak eta tailerrak. Proiektuak arrakasta izan du hasieratik bertatik eta motibazio bikaina gertatu da. Uste dut artisten eskaera handia zegoela”. Samira DJ iparramerikarrak Wierinck-en optimismoa apoiatzen du SisterSF-ri VJ sekzio bat eransteko erakutsi zuen kemena, web orri bat DJ femeninoak promozionatzeko.

“Duela gutxi konturatu nintzen ez nuela VJ emakume bat bera ezagutu; gainera, ezin nuen burura ekarri klub edo jaialdietan bisualak egindako emakumerik ikusia nuela, nahiz eta hainbestetara joana nintzen. Badakit badaudela, baina DJekin gertatzen den bezala, gizonak baino gutxiago dira VJ egiten duten emakumeak. Eta niri gustatuko litzaidake VJ emakumeren batekin lanean hastea eta posible egitea VJ emakumeak beren talentua erakustea. SisterSF-ren VJ sekzio berria da horren hasiera”.

D-Fuse, egoitza Londresen duen diseinuko kolektiboak duela gutxi publikatu du “VJ Audiovisual Art + VJ Culture” liburua, VJ kultura korronte artistiko nagusietan sartzen duena eta komunitate profesionalago eta antolatuagoa sortzea bultzatzen duena. D-Fuseko Dinak argudiatzen du gisa honetako publikazioak beharrezkoak direla VJen etorkizunerako:

“Gaur eske handia dago Audio/Video errepresentazioak ikusteko. VJen eremua oso azkar hazi da, bereziki Europako Ekialdean eta Japonian. Orain publizitatearen munduan sartu da. Baina arazoa da eszena hau amateurrek kudeatzen dutela eta ez badu plataforma sendo bat garatzen, dena errepara joango da. Tamalez VJ inprobisatu eta desantolatu gehiegi dago. Baina hau alor guztietan gertatzen da, arrain handia estanke txikian. VJen zirkuituak joera nagusiak bereganatu behar ditu zabalduko bada. Gure ustez liburu hau oso inportantea da, bere arrastoa utziko du eta eszena finkatuko du”.

Aktibitatea eta publizitatea hazi den arren, oso VJ gutxi bizi dira horretatik. Internazionalki famatuak Japonian ere, non VJek oro har publikoaren interes nabarmena lortu duten, oso artista aintzatetsi gutxi agertzen dira alor zabal eta lehiati horretatik. Birtualki merkaturik ez dagoenez VJ zintak edo DVDak saltzen, zuzeneko aktuzioak dituzte bakarrik beren obra publikoarekin partekatzeke.

Hala ere, VJen komunitateak etorkizuna baikor ikusten du. VJ AVIT ikuskizunean, Brightonen, Ingalaterra, Anyone VJk VJez hitz egin zuen erlijio bat bezala aurkeztuz, etorkizun hurbilean gazteak beren zeremoniak ospatzeko bilduko diren lekua bezala. Johnny DeKam VJk adibidez VJen bere programa Amerikako Estatu Batuetako hegoaldeko talde erlijiosoei saldu die. Espainian ospatzen diren eta hainbat egun irauten duten jaialdi audiobisualek alderaketa espiritualak sorrarazten dituzte eta adierazten dute VJak eta DJak hasi direla apaiz eta aztien funtzioak betetzen post-MTV belaunaldiarentzat.

Hala ere, garapen geroz eta bizkorragoarekin, rolek apenas uzten duten hau guztia gorpuzten. Cimatics-eko Nicok aurreikusten du nola audioa hala bideoa kontrolatzen duten MJek (Media Jammers edo Malabaristak) VJak superatu egingo dituztela. Bentonek nahi luke tresna bisualen elkarrekintza fisiko bat hala nola proiektzio teknologia inmertsiboetan. Eta honela jarraitzen du: “orain VJ deitzen duguna nolabait mundu osoak baliatuko lukeen oinarrizko trebezia bihurtuko da, zirriborroak egitea, instrumentu bat jotzen ikastea edota egunkari bat idaztea bezala. Nahiz eta puntu horretan, VJk antz gehiago izango duen txat saioetako bideojokoen jokalaririk batekin. Erakargarriak iruditzen zaizkit VJingaren ahalbideak eguneroko adierazpide eta komunikazio-bide bezala; eboluzio naturala irakurtzen edo idazten baino ordenagailua manejatzen lehenago ikasten duten gaurko umeentzat. Nire ondoan eseri zen bederatzi urteko neskato batek egin zidan nire obraren azterketa egokiena nire eramangarrian hamabost minutuz lanean ikusi eta gero”.

Johnny eta Nicoren afirmazioak nahikoa handinahiak izan daitezke, baina oraintsu Bartzelonan antolatutako tailer batean, 20 pertsona baino gehiago bildu ziren mahai baten inguruan hainbat ordutan mantenduz irudi eta soinuen korrontea. Inork ez zuen denborarik izan publikorik bazegoen ala ez konturatzeko eta hau benetan ez zen garrantzizkoa, guztien zuzeneko errepresentazioa berez zen sentsazio sinestezina.

//

Jatorriz Finlandiakoa den Mia Makelak (a.k.a. SOLU) bere praktika eta irakaskuntza ditu denbora errealeko arte audiobisuala, ikerketa independentea eta aktibismo kulturala. Gaur Bartzelonan bizi da.

[www.solu.org](http://www.solu.org)